



## PRENTSARAKO OHARRA

18/05/25

### **Sindikatueta ordezkariek Bulegoetako Bizkaiko hitzarmenaren negoziazioaren egungo egoera salatu dabe Batzarretako taldeen aurrean**

Bulegoetako Bizkaiko hitzarmenaren negoziazioaren mahaiari parte hartzen ari diran sindikatueta hainbat enpresa ordezkariei etorri dira gaur goizean Eskaeretak eta Herritarakazko Hartu-emonetak Batzordearen aurrera, Lurralde osoko 23.000 behargin baino gehiagorengan eragina daukan negoziazioaren egungo egoeraren barri emoteko.

Javier Rodríguez Fernándezek, Sergio Sáenz Álvarezek, Iker Martínez Gilek eta Sergio Fernández Pérezek zehaztu daben moduan, Bizkaian behargin gehien daukan bigarren sektorea da, eta informatika eta ingeniari enpresek, abogadu bulegoek... osatzen dabe, beste batzuen artean. Horreek enpresa pribadei eta Administrazio Publikoari emoten deusie zerbitzua. Sektoreak azkenengo hilebeteetan antolatu dauen hiru lanizte jardunaldiak eragin dituana, 2009an sinatu eta 2013an indar barik geratu zan lan hitzarmena izan da. Gaur egun, azalpenak emon dituenak adierazo dabenez, Bizkaiko Enpresarien Konfederazioagaz (CEBEK) dagon negoziazioa blokeata dago.

CEBEKen kasuan, proposamena muga bako izoztean, antxinakotasuneko plusaren aldaketan –muga bako hirurtekoetatik bosturteko bira pasatuz–, gitxieneko bermearen murrizketan edo desagertzean eta “Enpresei, hitzarmen barrira egokitze eta apliketako denporea emoteko lurreratze plan bat” egitean oinarritzen da. Sindikatueta ordezkariek antxinakotasuna eta gitxieneko bermea hitzarmen duina bermatzeko oinarritzko zutabeetako bi dirala adierazo dabe, “bestela, beharginen aukera bakarra, soldaten izoztea izango litzateke”.

Beharginen eta ELA, CCOO, LAB, UGT, CGT, CNT eta ESK sindikatuen aldetik, eskari nagusia 2009ko hitzarmena berreskuratzea da, “azkenengo 5 urteetan KPIaren hazkundearen azpitik igo diran soldaten taulak eguneratuz, 2009an enpresentzat eta beharginentzat baliozkoak ziran artikuluak gaur egun be baliozkoak diralako”. Bertaratuiek errebindikau daben beste puntu bat “beharginen salerosketea” da. Salatu dabenez, Iberdrola, Lantik, BBK edo BBVA, beste batzuen artean, horretan aritzen dira. Negoziazio mahaiari sartu ez arren, “badakielako CEBEKentzat marra gorria dala”, sindikatuen ordezkarien eretxiz beharrezkoa da hori arautzea, “sektoreko azpi-kontratazioaren bitartez”.

Euren esku-hartzeari amaierara emoteko, eskaria egin deusie Batzar Nagusiei, “berrestukatu gura dogun Bulegoetako Bizkaiko Hitzarmenak Bizkaiko 23.000 beharginentzat jasoten dituan askatasunak, pribilegioak, erabilerak eta ohiturak bete eta betearazo eiezan”.

Batzarretako taldeen txandan gehien errepikau dan galderetako bat, 2017tik Bizkaiko Foru Aldundiak bere kontratu publikoetan sartzan dituan eta helburu moduan kalidazeko

enplegua bermatzea daukien gizarte eta ingurumen arloko klausulak sartu izanaren ingurukoa izan da. Horri jagokonez, bertaratuak harrিতuta agertu dira, “sektore honetan gizarte arloko klausulen inguruan bizi dogun errealidadea desbardina dala” adierazoz, “zalantzan jarten dogu guk behar egiten dogun enpresek, hemen uste dozen moduan apliketan dituenik”.

Taldeen artean gehien aitatu dan beste gaietako bat, Batzar Nagusiek arlo horretan dituen eskumenen gainekoa izan da. Ordezkarri jeltzalearen berbetan, eskumen horrek “mugatuak” dira. Halanda be, Euzko Abertzaleak taldeak adierazo dauenez, ekonomia gorantz doan egoereagaz bat datozen enpleguaren kalidadearen eta soldaten igoeraren gaineko errebindikazioak “oinarrizko baldintza bi dira, eta ahalik eta arinen probintziako hitzarmena sinatzea gurako geunke”. EH Bilduk, barriz, “Batzar Nagusietara bazatoze, zer edo zerengaitik izango da”, adierazo dau, eta mobilizazioek aurrera jarraituko daben galdetu dau. Bertaratuek adierazo dabenez, eurak holangorik gura ez daben arren, “hori da geratzen jakun aukera bakarra”.

NOTA DE PRENSA

25/05/18

## **Delegados sindicales denuncian ante los grupos junteros la situación actual de la negociación del convenio de oficinas y despachos de Bizkaia**

Varios delegados de empresa de los diferentes sindicatos presentes en la mesa de negociación del convenio de oficinas y despachos de Bizkaia han comparecido esta mañana ante la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía a fin de exponer la situación que está atravesando la negociación y que afecta a 23.000 trabajadores de todo el Territorio.

Tal y como han detallado Javier Rodríguez Fernández, Sergio Sáenz Álvarez, Iker Martínez Gil y Sergio Fernández Pérez, éste se trata del segundo sector con mayor número de trabajadores de Bizkaia y se encuentra conformado por empresas informáticas, ingenierías, despachos de abogados, entre otros, los cuales prestan servicio tanto a empresas privadas como a la Administración Pública. El desencadenante de las tres jornadas de paro que el sector ha organizado en los últimos meses fue la suspensión en 2013 del convenio laboral firmado en 2009. Actualmente, según han explicado los ponentes, la situación de negociación con la Confederación Empresarial de Bizkaia (CEBEK) se encuentra bloqueada.

En el caso de CEBEK su propuesta está basada en la congelación indefinida, la modificación del plus de antigüedad – pasando de trienios indefinidos a dos quinquenios-, el recorte o supresión de la garantía mínima y la realización de “un plan de aterrizaje para dar tiempo a las Empresas a adaptarse y aplicar el nuevo convenio”. Los delegados sindicales han definido la antigüedad y la garantía mínima como dos de los pilares fundamentales para garantizar un convenio digno, “de lo contrario los trabajadores estarían abocados a una congelación salarial”.

Por parte de los trabajadores y los sindicatos ELA, CCOO, LAB, UGT, CGT, CNT y ESK, la petición principal es recuperar el convenio de 2009 “actualizando las tablas salariales por debajo del crecimiento del IPC de estos últimos 5 años y manteniendo el mismo articulado que era válido en 2009 para empresas y trabajadores y es válido en la actualidad”. Otra de las cuestiones que los ponentes han reivindicado es el fin del “mercadeo de trabajadores” al que, según han denunciado, se dedican empresas como Iberdrola, Lantik, BBK o BBVA. A pesar de no incluirlo en la mesa de negociación, puesto que “somos conscientes de que se trata de una línea roja para CEBEK”, los delegados sindicales ven necesaria una regulación “mediante la subcontratación en el sector”.

Su intervención ha finalizado instando a las Juntas Generales, que “guarden y manden guardar las libertades, franquezas, privilegios, usos y costumbres que el Convenio de Oficinas y Despachos de Bizkaia recoge para 23.000 trabajadores de Bizkaia y el cuál queremos recuperar”.

En el turno de los grupos junteros una de las preguntas más repetidas ha versado sobre el la inclusión de las cláusulas sociales y medioambientales que desde 2017 la Diputación Foral de Bizkaia incorpora en sus contratos públicos y que tienen como objetivo garantizar el empleo de calidad. A este respecto los intervinientes han mostrado sorpresa por alusión a las cláusulas alegando que “la realidad que vivimos en este sector respecto a las cláusulas sociales es distinta” puesto que “dudamos que las empresas en las que trabajamos las apliquen como aquí se cree que se están aplicando”.

Otra de las cuestiones más comentadas entre los grupos ha sido en referencia a las competencias de las Juntas Generales en este ámbito, las cuales el representante nacionalista ha tildado como “limitadas”. Sin embargo el grupo Nacionalistas Vascos ha manifestado que la reivindicación de calidad de empleo y de incremento salariales que se ajusten a la situación de recuperación económica “son dos condiciones básicas y deseamos que podáis contar con un convenio provincial cuanto antes”. EH Bildu, sin embargo, ha asegurado que “si venís a las Juntas Generales es por algo”, y se ha interesado por si van a persistir las movilizaciones, a lo que los intervinientes han explicado que, a pesar de no querer, “no nos queda otra opción”.